

EREMUAK LAGATZEA

Jasotzaileak

Lagatzeko eremuak erabili ahal izango dituzte irabazi asmorik gabeko edo helburu sozialak eta/edo kulturalak dituzten elkarte, asoziazio, entitate eta talde guztiek hantxe haien jarduerak garatzeko.

Enpresek edo partikularrek eremuak lagatzeko sistema erabili dezakete haien jarduerak garatzeko Udalak uste badu jarduera horiek interes soziala dutela, eta dagozkien tasak ordaindu beharko dituzte. Salbuespen bakarra dago tasarik ez ordaintzeko: Udalarekin lankidetzat-hitzarmena duten enpresek, hitzarmen horretan espresuki jasotzen bada, ez dute tasarik ordaindu behar.

Kasu guztietan Udalak eskubidea izango du jarduerak egiteko lagapena eman edo ukatzeko, betiere udalaren esku-hartzearen helburu eta lerroekiko egokitasunaren eta kalitatearen arabera.

Lagatzen diren eremu-motak:

- **1. MOTA.- Orokorrak**
Tailer eta prestakuntzarako gelak
Erabilera anitzetarako aretoak
- **2. MOTA.- Espezifikoak**
Hitzaldi-aretoa
- **3. MOTA.- Mugatua**
Antzerkia
Erakusketa-aretoa

Eskaera

Kultur Etxearen eremuei buruzko informazioa eta erreserba guztiak Informazio eta Kontrolerako Zerbitzuan zentralizatzen dira. Erreserbak ezarritako ereduari jarraituz egin behar dira, bai zuzenean Informazio eta Kontrolerako Zerbitzura ekarriz, bai fax edo posta elektronikoaren bidez. Erreserbak ezin dira telefono bidez egin.

Udal baimenak baldintzatzen ditu Lagapen guztiak.

Eremuetara sartzeko, baimenaz gain, Udal Ordenantzen bidez ezarritako tasak ordaindu beharko dira (hala badagokio).

Udalaren esku-hartzeak baldintzatuko du eremuen erabilera lagatzea. Esku-hartze horren bidez ez ohizko moduan baimendutako lagapena eten egin daiteke edo horren ordutegia aldatu, eta ezingo da erreklamaziorik jarri. Dena dela, ahal den guztietan, erabaki hori behientzat 48 ordu lehenago jakinaraziko da. Halaber, Zentroaren arduradunek instalazioak edo instalazioen parte bat erabiltzaileentzat eta edozeinentzat itxi ditzakete behin-behineko arrazoiengatik erabilerak edozein arrisku-mota sortu ahal duenean.

Halaber, beharrezkoa balitz, eremuaren lagapena bertan behera utz daiteke instalazioa gaizki erabiltzeagatik edo hantxe egiten diren jarduerak lagapenaren hasierako arrazoiak aurkakoak badira.

Eremu bat laga edo erreserbatzen den guztietan, beti pertsona batek erabilera egokiaren erantzule izan behar du.

Adin gabeko batek eremu bat eskatzen badu, gurasoen edo tutorearen baimena behar du. Gainera, heldu arduradunari hantxe izateko eskatu ahal izango zaio.

Erreserba egin duen pertsonak edo taldeak ordaindu beharko ditu arduragabekeriagatik edo erabilera ez egokiarengatik sortzen diren kalteak.

Prezio publikoen edo tasen barruan ez dira sartzen, espresuki horrela adierazten ez bada behintzat, muntatzeko lanak edo jarduera prestatzeko aparteko lanak.

Erreserbako onuradunek, kasuan kasuko zehazpenetan salbu, beren baliabide teknikoak (langileak eta materiala) izan behar dituzte beren jarduerak garatzeko.

Kasu bakoitzean udalak ezartzen dituen baldintzek mugatuko dute lagapena.

Lagatzen diren eremuen erabilera

Eremuan erabilera orokorreko materialik balego (eta hori lagapena egiten den unean adieraziko zaie), material hori erabiltzaileen esku jarriko da, eta erabiltzaileek material hori bildu eta dagokion biltokian gordetzeko ardura dute.

Elementu zehatzak erabiltzeko, maneiatzeko edo muntatzeko orduan, Udalak lan hori enpresa edo pertsona zehatz batzuek egin behar dutela agindu dezake. Gainera erabiltzaile eskatzaileak ordaindu beharko du lan horien kostua eta erabilitako materialen garraioaren kostua.

Erabili behar dugunean zentroan ez ditugun materialak, eremua eskatu duenak jarriko ditu elementu horiek guztiak. Dena dela, beti udalaren baimena behar da horretarako.

Kultur Etxean egiten diren jarduera guztietarako material egokia erabili behar da. Material horiek edo jarduerak berak ezin dituzte altzariak edo eraikinak hondatu. Gainera, kontuan izan beharko dira edozein instalazio eta/edo materialaren erabilerari buruzko berezko arauak.

Jarduera dela-eta, instalaziotik kanpoko materiala hantxe utzi behar denean, material hori guztia armairu, kutxa edo horretarako jarritako lekuetan bildu behar da eta Udalak ez du material horren ardura izango.

Eremuak honako ordu hauen barruan erabili ahal izango dira:

Goizez: 11:00-13:00

Arratsaldez: 15:00-21:30

Egun osoa: 11:00-13:00/15.00-21:30

Ezin da instalazioetara sartu instalazioak itxita dauden egunetan (funtzionamendurako egutegiaren arabera).

Aretoen Lagapenaren entitate arduradunek ezin dute inolaz ere areto horren erabilera beste batzuei utzi.

Eskuratzeko moduak

Bi modu ditugu Kultur Etxearen eremuetara sartzeko:

a.- Denboraldiko erreserba programatuak

b.- Aldez aurretiko erreserba zuzenak

a.- Denboraldiko erreserba programatuak

Denboralditzat hartzen da hurrengo urteko iraila/urritik maiatza/ekainera arte luzatzen den jarduera.

Denboraldirako erreserba programatuak egin ditzakete –indarrean diren arauak betez–, Udal Erregistroan izena emanda dauden nahi duten elkarte eta talde guztiek, betiere ohiko programazioan edo programazioko erreserbetan eragina ez duten ordu eta egunetarako.

Modalitate honen bidez 1. Motako eremuak erreserbatu ahal izango dira.

Modalitate honen bidez eremu espezifikoak (2. mota) eta erabilera mugatuko eremuak (3. mota) erabili ahal izango dituzte bakar-bakarrik Udalak horrela izan behar duela uste badu.

Lagapen mota horretan eskaerak urtero maiatzean egin behar dira. Epe hori igaro ondoren ezin dugu bermatu denboraldiko eremuak lagatzeko aukera, eta eskaerak Aldez aurretiko eskaeren prozeduraren bidez tramitatuko dira.

Kultur Zerbitzuak eremu zehatzaren esleipena egingo du, hantxe garatuko duten jardueraren ezaugarrien balorazio teknikoa egin ondoren eta dituzten eremu libreak kontuan izanik. Udalak eta Entitate eskatzaileak lagatzeko kontratua sinatuko dute. Akordio horretan lagapenaren baldintza guztiak jasoko dira.

Eskatzaileek lagapen mota horretarako egindako inprimakiak bete eta Kultur Etxearen Informazio eta Kontrolerako Zerbitzura ekarri behar dituzte.

Denboraldiko erreserba programatuek tasak ordaindu behar dituzte, ordenantzak espresuki ordaindu behar ez dutela esaten duen kasuetan izan ezik. Lagapena baieztatu eta baimendu ondoren dagokion tasa ordaindu behar da.

Une horretatik aurrera, egiten diren aldaketa guztien berri eman behar zaio Informazio eta Kontrolerako Zerbitzuari, eta Zerbitzu horrek berehala Kultur Zerbitzuari jakinaraziko dio. Halaber, lagapenaren onuradunak, edozein arrazoi dela-eta, ezin badu instalaziora etorri, hori ere aldez aurretik jakinarazi behar du.

Hilabeteen ez badu instalazioa erabili edo tasak ez baditu ordaintzen, erreserba programatutako eskubide guztiak galduko ditu eta, gainera, egoera hori kontuan izango da etorkizuneko lagapenetarako.

b.- Aldez aurretiko erreserba zuzenak

Modalitate honen bidez 1. eta 2. motako instalazioak eskura daitezke. Erabilera mugatuko eremuak (3. mota) aldez aurretiko erreserba zuzenaren bidez ere eskura daitezke, baina erreserba hori arau espezifiko batzuen arabera egingo da (atal espezifikoa). Beraz, atal honek 1. eta 2. motako eremuak baino ez ditu arautzen.

Asteko eta asteburuko funtzionamenduaren taulan libre dauden ordu guztiak erreserba daitezke. Udalak, eskaerak aztertuta, mugatuko du zenbat ordurako lagako dituen eremuak.

Erabiltzaileek Udal Ordenantzak ezarritako tasak ordaindu behar dituzte eremua okupatu baino lehen. Ordainketa esleitutako eremuan sartzeko unera arte egin daiteke. Erabiltzaileak ez badu tasa ordaintzen, ezin izango du esleitutako eremura sartu.

Ordainketa banku-helbideratze bidez edo zuzenean Informazio eta Kontrolerako Zerbitzuan egin daiteke (diruz zein txartela bidez). Erabiltzaileari ez zaio inoiz ordaindutakoa itzuliko, zentroak lagapena bertan behera uzten duenean edo Instalazioaren egoeratik erabili ezin denean izan ezik.

Gainera, eta kasu berezietan soilik, zentroaren programazioak aukera ematen duenean, instalazioak Entitate pribatuei ere lagatzea posible izango da haien jarduerak garatu ditzaten. Horretarako, alokairua ordaindu beharko dute. Kasu horretan eskaera egin behar da eta prozedura berezi bidez erabakiko da, eta lagapen horiek ez dira inoiz egongo araudi honen aurreko ataletan ezarritakoaren menpe.

Eremu mugatuetara sartzea: AUDITORIOA

Jarduerak

Antzokira sartzeko aldez aurretiko erreserba zuzena egin behar da. Bi jarduera mota egin daitezke hantxe:

Eszenikoak

Eszenikoak ez diren jarduerak.

Eskaera

Antzokira sartzeko, bai eta gainontzeko eremuetara sartzeko ere, idatzizko eskaera egin behar da, horretarako ditugun inprimakiak bete. Datu guztiak bete behar dira. Batez ere Entitate eskatzailearen pertsonaren identitatea. Pertsona hori lagapenaren arduraduna izango da eta jarduera amaitzerakoan antzokia zegoen bezala uzten dutela bermatuko du.

Eskaeran behar teknikoak eta kontratatuko zerbitzuak ere agertu behar dira. Horiek guztiak eskaeraren fitxan agertu behar dira.

Fidantza eta tasak

Antzokira sartu ahal izateko, dagokion tasak ordaindu behar dira. Antzokia lagatzen den guztietan fidantza bat ordaintzeko eskatuko da.

Tasetan honako hauek sartzen dira

Elektrizitatea, aire klimatizatua
Argia, soinua eta makineria eszenikoa
Eszenatokia
Jantziak
Sarrerak

Eserlekutan kokatzeko zerbitzua, langile teknikoak eta sarrerak saltzeko zerbitzua kontratatu daitezke dagozkien kuotak ordainuz gero.

Eskuratzea

Antzoki-auditoria eskuratzeko bi modalitate ditugu:

- **A MODALITATEA** : Ez dute baimena Antzokiko ikus-entzunezko ekipo teknikoak erabiltzeko (adib. entseguak), bakarrik soinu ekipoak piztu ahal izango dituzte (hitzaldiak, etab.)

Entitateak ezin ditu inolaz ere antzokiko ekipo teknikoak edo kabina teknikoa erabili. Debekatuta dago horiek manipulatzeko, batez ere makineria eszenikoa manipulatzeko. Udaleko langileek izango dute ekipoak pizteko ardura eta, beharrezkoa balitz, mikrofonoak jartzeko ardura ere.

Ekipo horiek erabiliz gero, udalak ez du izango sor daitezkeen kalte, edo aberien ardurarik, eskatzaileak izango du kalte eta aberia horien ardura zuzena. Beraz, Udalak, sortutako kalteengatik, egoki jotzen dituen lege-ekintza guztiak has ditzake.

- **B MODALITATEA:** Argiztapen eta soinu-ekipoak erabili daitezke, argi- eta soinu-muntaia alda daiteke, kabina erabili daiteke ekipoak maneiatzeko eta/edo makineria eszenikoa erabil daiteke.

Udaleko langileek argiztapen- eta soinu-muntaketa eta makineri eszeniko osoa berrikusiko dute. Udal langile horiek beti aretoan izango dira.

Lagapenaren ardura duen Entitateak berak langile teknikoak baditu, langile horiek kontuan izango dituzte antzokiko ekipo teknikoak, erabiltzeko moduari eta funtzionamenduari buruz Udaleko langileek egiten dizkieten oharak. Muntaketa definitu ondoren, ezin da aldaketarik egin. Arau-haustetzat hartuko da eremu horretan egiten den edozein aldaketa.

Entitateko teknikarien taldeak, jarduera amaitu ondoren eta hitzartutako orduan, desmuntatu beharko du eta antzokia betiko moduan utzi beharko du.

Funtzionamendurako arauak

Antzokirako sarrera baieztatu ondoren, Kultur Zerbitzua Entitate Eskatzailearekin harremanetan jarriko da beharrezko alderdi guztiak zehazteko eta sartzeko eredia adosteko.

Entitate eskatzaileak Antzokiaren ardura izango du antzokira bertara sartzen den unetik aurrera han dagoen bitartean eta antzokitik betiko ateratzen den arte. Hori dela eta, Informazio eta Kontrolerako Zerbitzuko langileei beti jakinarazi behar diete noiz sartu eta noiz ateratzen diren. Antzokia ezin da inoiz irekita edo hutsik utzi.

Entitate eskatzaileak segurtasunari buruzko arau guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, batez ere suaren erabilerari eta ate, korridore eta larrialdietarako irteeretan pasabidea ixteari buruzkoak.

Aretoan ezin da inolaz ere baimendutako edukiera gainditu. Hori dela eta, beharrezkoa izango da sarrerak banatzea. Eserleketan ikusleak kokatzeko langileak eta txartel-leihatilako langileak ez badira Antzokiaren lagapenean sartzen, entitate eskatzaileak sarreraren eta eserleketan ikusleak kokatzeko kontrolaren ardura izango du. Beharrezkoa balitz, publikoaren eta langileen ebakuazioaz ere arduratuko da, betiere indarrean diren arauen arabera.

Entitate eskatzaileak antzerkiaren erabileraren ondorioz sor litezkeen erreklamazio guztien ardura izango du: Sarrerengatik, eserleketan ikusleak kokatzeagatik edo edozein motako kalteengatik sortzen diren erreklamazioak.

Jarduera eszenikoen kasuan, debekatuta dago antzezpenetan ikuskizunen soinu-irudiak grabatzea baimenik gabe. Grabazioa baimentzen bada, horretarako diren lekuetatik egingo da, publikoari traba ez egiteko.

Entitate eskatzaileak eskatutako fitxa guztiak bete behar ditu, eta adostutako ordutegiak errespetatu behar ditu beti.

Araua hauek betetzen ez badira, Udalak egoki jotzen dituen ekintza zigortzaileak has ditzake (fidantza ez itzultzea edo etorkizuneko eskaerei ezetz esatea).

Antzokia talde artistiko bati lagatzen zaionean estreinaldi bat edo erreperatorioko obra bat prestatzeko, ikuskizun horren emanaldi bat egin beharko dute Kultur Zerbitzuak zehazten duen egun eta tokian. Ikuskizunetarako lagapenak –estreinaldiak eta Kultur Zerbitzuarekin aurretik ados jarritako kasuetan izan ezik–, ez du astebete baino gehiagoko iraupena izango.

Ezin da inoiz sarrerarik kobratu Udalaren baimenik gabe.

Araua hauen edozein salbuespenerako Udalaren baimena behar da.

Eremu mugatuetara sartzea: ERAKUSKETA-ARETOA

Jarduerak

Eremu hau erakusteko helburuko edozein ekintzarako edo aretoak har dezakeen edozein erakusketa egiteko erabili daiteke.

Eskaera

Erakusketa-aretora sartzeko, bai eta gainontzeko eremuetara sartzeko ere, idatzizko eskaera egin behar da, horretarako ditugun inprimakiak betez. Datu guztiak bete behar dira. Batez ere Entitate eskatzailearen pertsonaren identitatea. Pertsona hori lagapenaren arduraduna izango da eta jarduera amaitzerakoan erakusketa-aretoa zegoen bezala uzten dutela bermatuko du.

Eskaeran, halaber, erakusketaren behar materialak eta kontratatutako zerbitzuak jasoko dira (muntatzea eta desmuntatzea / zaintza /biak).

Eskaera behintzat hilabete lehenago egin behar da.

Lau eskaera mota daude:

- Udalerriko elkarte, talde eta/edo entitateek eskatutako erakusketak
- Udalerrikoak ez diren elkarte, talde eta/edo entitateek eskatutako eta guztien intereseko erakusketak
- Arte eta eskulanezko zaleek eskatutako erakusketak beren lana ezagutarazteko.
- Artistek edo artista profesionalen taldeek eskatutako erakusketak beren lana ezagutarazteko eta arte-sorkuntzari laguntzeko moduan.

Fidantza eta tasak

Erakusketa-aretora sartzeko, dagozkion tasak ordaindu behar dira.

Erakusketa-aretoa lagatzen den guztietan fidantza baten ordainketa eskatuko da.

Tasan honako hauek sartzen dira:

- Aretoa eta bertan diren eta behar diren erakusketarako euskarriak.

Erakusketaren euskarri moduan, erakusketa-aretoa lagatzeaz gain, hitzaldien aretoa eskatu daiteke ikus-entzunezko materiala eskuratzeko. Kasu horretan dagozkion tasak ordaindu beharko dira.

Eskuratzea

Bi modu ditugu aretoa eskuratu ahal izateko:

1.- Inolako zerbitzurik kontratatu gabe

Entitate eskatzaileak erakusketa muntatzeaz eta desmuntatzeaz arduratuko da. Entitateak berak langileak izan behar ditu erakusketaren zaintza egiteko jendearentzat irekita dagoen ordutegian.

2.- Udal zerbitzu batzuk kontratatuz. Honako zerbitzu hauek izan daitezke:

- Muntatzeko eta desmuntatzeko zerbitzua
- Zaintza-zerbitzua
- Muntatzeko/desmuntatzeko eta zaintza-zerbitzua

Zerbitzu bakarra kontratatuz gero, zuzenean entitate eskatzaileak eman beharko du bestea.

Udalak, kasu batean zein bestean, aretoak dituen erakusketa-euskarriak entitatearen esku jarriko ditu. Erakusketetarako Zentroan ez dugun materialik behar izanez gero, Entitate eskatzaileak jarri beharko du material hori eta dagokion baimena izan behar du.

Funtzionamendurako arauak

Erakusketa Aretorako sarrera baieztatu ondoren, Kultura Zerbitzu entitate eskatzailearekin harremanetan jarriko da ohar guztiak finkatzeko.

Udalak ez du inolako erantzukizunik erakutsitako objektuak apurtu, lapurtu edo hondatzen badira, Entitate eskatzaileak beharrezko neurriak jarri beharko ditu horrelakorik gerta ez dadin.

Lagatako aretoan edo erakusketa-euskarritan kalterik sortzekotan, Entitateak bere gain hartu beharko ditu kalte horiek.

Entitate eskatzaileak egingo du erakusketei buruzko publizitatea. Kultur Zerbitzuak egoki jotzen duenean, publizitatea egin dezake edo erakusketaren difusioan parte har dezake.

Kultur Zerbitzuak finkatuko ditu aretoan sartzeko ordutegi guztiak (muntatzeko-desmuntatzeko /erakusketa egiteko, etab.eko ordutegiak) eta zentroak berak ireki eta itxiko du aretoa.

Aretoa gehienez erakusketaren aurreko eta ondorengo astebetez erabil daiteke.

Entitate eskatzaileak bere gain hartzen du aretoaren segurtasunari eta larrialdiei buruzko arau guztiak errespetatzeko ardura eta, beharrezkoa balitz, aretoaren ebakuazioaz arduratuko beharko litzateke horretarako udaleko langilerik ez balego.

Erakusketaren entitate antolatzailea jarduerari eta erakutsitako material osoari buruzko erreklamazioen erantzulea izango da.

Erabat debekatuta dago erakutsitako objektuekin transakzio ekonomikoak egitea. Dena dela, obra erakusten duen egileak edo taldeak telefono zenbaki bat utz dezake pertsona interesdunek deitu diezaioten.

Aparteko kasuetan eta erakutsitako materialen salmenta ongintzazkoa bada edo laguntzeko helburu badu, entitateak salmentak egin ditzake, betiere dagokion baimena baldin badu.

Erakusketek beti denontzat eta doan izan behar dute. Erakusketarako kuotaren bat ordaindu behar bada, kuota hori udalaren baimenaren pean egongo da eta Udalak oinarrizko tasaren %10 gehitzeko eskubidea du.

Araua hauen edozein salbuespenerako Udalaren Kultur Zerbitzuaren baimena behar da.